

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

BESTELAKOAK

[Arte Gaztea](#)

Huarte zentroa

2018/09/28 - 2018/10/17

Arte Gaztea lehiaketako aurkezpena irailaren 28an egingo da Uharte Zentroan arratsaldeko 18:30ean. Orduetik, urriaren 7a arte, ikusgai egongo dira arte plastikoen modalitatean sailkatuak izan diren lanak. Ondorengo egunetarako hainbat lantegi eta ekimen antolatu dira, guztiak, interesa duen edonori irekita daude. Lantegietan parte hartzeko, izena eman behar da eposta bat bidaliz encuentros@navarra.es helbidean.

[Pablo Antoñana](#)

Biblioteca de Navarra

Asteartea / 18:30h.

La Biblioteca de Navarra dedica una jornada en recuerdo del escritor Pablo Antoñana, cuando está próximo a cumplirse el décimo aniversario de su fallecimiento y coincidiendo con la reciente publicación de su libro de memorias de infancia y juventud –“Hilvano recuerdos: memorias de mi infancia, la Guerra civil y la posguerra”.

BISITAK ETA IBILALDIAK

[Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu](#)

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatzen badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

[Tuterako katedraleko Judizioaren Ateko](#)

Tuterako katedraleko

Larunbata, igandea. 10:00h, 10:45h, 11:30h, 12:15h, 13:00h.

Bisiten iraupena ordu erdi ingurukoa izango da eta gehienez 10 pertsona sartu ahalko dira txanda bakoitzean.

Tuterako katedraleko Judizioaren Ateko

Tuterako katedraleko

Larunbata, igandea. 10:00etan 10:45etan, 11:30etan, 12:15etan, 13:00etan.

Bisiten iraupena ordu erdi ingurukoa izango da eta gehienez 10 pertsona sartu ahalko dira txanda bakoitzean.

Zatoz Karlismoaren Museora

karlismoaren Museoa (Estella-Lizarra)

Bisitaldi gidatuak erakusketa iraunkorrera.

Ostirala / 16.30 eta 17.30.

Jarduera guztiak doakoak dira.

Leku guztiak bete arte.

Argibide gehiagotarako: www.museodelcarlismo.navarra.es

ERAKUSKETAK

Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)

Nafarroako Artxiboan

2018/10/01 - 2018/10/31

“Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)” erakusketa doakoa da, eta hilabete osoan zabalik egongo da Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko beheko galerian. 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisita daiteke asteko egun guztietan, asteburuak eta jai-egunak barne.

Nafarroako Errege Artxibo Nagusian “Isidoro Fagoaga Larrache (1893-1976)” erakusketa ikusgai izango da urrian zehar; hau da, Berako tenorearen eta idazlearen ibilbideari eskainitako mikroerakusketa, jaio zenetik 125 urte betetzearekin batera, eta Ondarearen Europako Jardunaldien barruan kokatuta. Era berean, haren irudia glosatze aldera, urriaren 5ean, ostiralean, 19:00etan, baita ere Nafarroako Artxiboan, “Los baúles de Sigfrido Fagoaga” izeneko hitzaldia eskainiko du Germán Ereña ikertzaileak, eta tenorearen ahots orijinala duten entzunaldiak entzun ahal izango dira.

Macla, mamua, bismuto, vicario

Oteiza Museoak

2018/07/27 - 2018/11/30

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: “la Caixa” Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea.

Oteiza Museoak “Macla, mamua, bismuto, vicario” erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Alzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

KONFERENTZIAK

Julián Gayarreraren inguruko hitzaldi-kontzertua

Nafarroako Liburutegia. 1. Solairua Aretoa

Astelehena. 18.00etan

Hizlaria: Oscar Salvoch

Sarrera doan eserlekuak agortu arte

KONTZERTUAK

Bidasoako Organoen Eguna

Organo Musika Nafarroan

Doneztebe/Santesteban. San Pedro. Ostirala

11:00 | San Pedro. Bisita gidatua Cavallé-Coll organora. Iosu Larumbe.

17:30 | Herrigune. "Haizea eta Ura" dokumentalaren proiektzioa.

19:30 | San Pedro. Kontzertua. Mendi Abesbatza. Iosu Larumbe. Mendi Abesbatza.

Nafarroako Erriberako Organoen Eguna

Tutera. Larunbata

11:45 - 13:30 | Katedrala. Musika ibilaldiak Katedralean. Organo eta ganbera-musika. Nafarroako organoaren geletako ikasleak.

10:30 - 13:00 | Katedraleko klaustroa. Aire zaba-lean hoditeria eraikiz. Christine Vetter.

17:00 | Almirantearen etxea. Aurkezpena, elkarrizketak. Ondare artistikoa. Zer ematen dio gizarte bati? Zer gaitzen du gizarteak ondarea hondatzen denean? Esku hartuko dutenak: Jesús Gonzalo López, José Ortega García eta Santiago Rueda. Moderatzailea: Raúl del Toro.

20:45 | Katedrala. Kontzertua. Flautatuetatik klarinetara. Jesús Gonzalo López.

TAILERRAK

Estanpazio-teknikak, hezkuntza-baliabide

Huarte zentroa

Astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna

Eskua estanpatzea gizakiak erabilitako lehenengoetariko adierazpen-plastikoa da, esperimentazioaren bidez edo halabarez sortua. Aztarna simple hori aberastuz joango da eta ikasgelan baliabide didaktiko gisa erabil daitezkeen estanpazio modu ezberdinak sortuko ditu.

Periferia Birpentsatu Etxabakoitzen

Huarte zentroa

2018/10/08 - 2018/11/03

EGILEA: Orekari Estudio / Enter This

Periferia Birpentsatuk, periferiako auzoetan espazio publikoa ber-bereganatuz, kultura garaikidea gerturatu nahi du.

Ongietorri ipuinetara

Nafarroako Liburutegia

asteazkena. 18.00etan

Asteazkenero, gurasoek eta beste boluntario batzuek ipuinak irakurtzen dizkiete haurrei gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

Habitación: Barruko landareak

Huarte zentroa

2018/09/07 - 2018/10/14

Bi eskultoreren arteko lankidetzak botanika arloko fenomeno baten antza izan lezake.

Toisoiaren ebasketa, escape room-ean

Karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

2018/05/18 - 2018/10/14

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren karietara egingen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

Objektua memoriaren eraikuntzatzat

Oteiza Museoak

Igandea / 11.30etan

Lantegia familian

Lantegi honek proposatzen du eguneroko objektuen eraldaketatik gogoeta egitea, haurrek emakume artistei buruz jasotzen duten irudiaren inguruan. Familian forma emango diogu gaiari buruzko geure ikuspegiari, sorkuntza ludikoa baliatuta.

2018ko urriaren 14an, igandea. 11:30etik 13:30 arte. 6 eta 11 urte bitartekoentzat.

Prezioa: 6 € heldua + haurra. Toki kopuru mugatua. Aurrez izena eman behar da didactica@museooteiza.org helbidean.

ZINEMA

Western

Nafarroako Filmoteka

Astelehena / 20.00etan

Valeska Grisebach zuzendari alemaniarrek, bere hirugarren filman, maskulinitatearen deskribapen bikain eta harrigarria egiten du: kultura- ezberdintasunen eta atzerritarraren harrerari buruzko gaiak jorratzen ditu eta modu alegorikoan, Europa berriaren barruko borroka zuhurtziaz agertzen du, western sozial baten ikuspuntuarekin.

Zuzendaritza eta gidoia: Valeska Grisebach

La dama de Shanghai

Nafarroako Filmoteka

Asteazkena / 20.00etan

Filma Sherwood Kingen polizia-nobela ospetsuan (If I die before I wake) oinarrituta dago, baina Wellesek filmerako 15 orrialdeko egokitzaipena baino ez zuen idatzi.

Zuzendaritza eta Gidoia : Orson Wellesz

Perfume de mujer

Nafarroako Filmoteka

osteguna / 20.00etan

7 eguneko bidai bat du artado filmak, Turinetik Napolira, 1973. urtean zehar. Fausto Consolo (Vittorio Gassman) kapitainaren istorioa kontatzen du, maniobra militar batzuetan izandako istripu batean larriki zauritutakoa.

Zuzendaritza : Dino Risi

